

Kontu Ikuskaritzako Unibertsitate Masterra Sartzeko profila

Masterreko irakaskuntza ofizialak egiteko beharrezkoa izango da espainiar unibertsitateko titulu ofizial bat, edo Europako Unibertsitate Eremuko goi mailako hezkuntza erakunde baten titulu bat edukitzea, titulua luzatzen duen herrialdean masterreko ikasketak edo baliokideak egiten hasteko modua ematen duena.

Titulua Europako Unibertsitate Eremukoak ez diren hezkuntza sistemetan lortu dutenak ere sartu ahal izango dira, titulua homologatzeko beharizanik gabe, Deustuko Unibertsitateak titulua Espainiako unibertsitate tituluen pareko prestakuntza mailakoa dela eta titulua eman duen herrialdean graduondoko irakaskuntzetan sartzeko modua ematen duela egiaztatuz gero. Indarrean dagoen legeriaren arabera, bide horrek ez du esan nahi, inolaz ere, pertsona horren aurretiko titulua homologatuko denik, edo aitorten berezirik emango zaionik, Master ikasketak egiteko aukera besterik ez.

Masterrera kualifikazioa duen edozein pertsona sar daiteke, adina, sexua, arraza, erlijioa, ezgaitasuna, sexu orientazioa, jatorria edo bestelakoa edozein dela ere. Nolanahi ere, beti beharko dira indarrean dagoen legeriak zehaztutako sarrera eskakizunez gainera, dagoeneko aipatu ditugunak.

Nori zuzenduta dago masterra?

Arlo hauetako lizentziadun eta gradudunei:

- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza
- Zuzenbidea, Ekonomia Espezialitatea eginez gero
- Ekonomia Zientziak
- Finantza eta Aktuariotza Zientziak
- Graduondoko ikasketetarako sarbidea ematen duten beste titulazio batzuk, haien ikasketa planean gutxienez 12 kreditu ematen badituzte kontabilitateko eta enpresako irakasgaietan.